

JARDUTE PROFESIONALERAKO NIRE SARRERA

LAN AUTOBIOGRAFIKO PROPOSAMENA

Eraikuntza autobiografikoa¹ eta gizarte langintzarako nire sarreraren prospektibari buruzko hausnarketa lana izango da lana, zeinak teoria-praktika elementuak barnebilduko ditu.

(...) que los sujetos se constituyen social e históricamente, no sólo en relación a la historia de las formaciones discursivas, sino particularmente vinculados a sus historias personales. Así, las experiencias cotidianas protagonizadas a lo largo de su trayecto vital y las condiciones singulares en las que han recorrido sus existencias individuales habilitan la construcción y atribución de sentidos a los distintos hechos en los que se involucran. Se trata de construcciones personales progresivas, no estáticas, que se originan, evolucionan y cambian a través de procesos de reestructuración basados en la interacción y contraste de ideas en experiencias sociales y culturales (Aiello, B.; Iriarte, L.; Sassi, V. 2011p.2-3).

Lana berreraikuntza autobiografikoan etzan izango da, tresna pedagogikotzat hartuta, gizarte langileak izango diren ikasleek, ikasketa hauek hautatzera eraman zituzten motibazioak, zergatiak edo sinesmenak aztertu ahal izateko, eta hortik abiatuta, bere identitate profesionalaren perfila eraikitzen hasi dimentsio ezberdinetatik. Deseraiki-eraiki-berreraiki, hau da, berriz pentsatu gizarte langintzari buruzko teoriarik oinarritutako bakoitzaren bertsioaz, ikasgai honetako gunean bizi izango dituzten 4. mailako ikaskideekin eztabaidetatik eta gizarte langileei egindako elkarrizketetik.

Norberak jardute profesionalaren bere irudizko proposamena egitean, oinarritzko helburuak ondokoak izango ziren:

- Gizarte langilea izatera erabakiaren zergatietan sakondu;
- Ikaskideekin gure hautaketaren motibazioak kontrastatu;
- Identitate profesional ezberdinen oinarriak aztertu eta berreraiki;
- Profesional gisa jardun nahiko genukeen lan eremuen artean gizarte langintzaren esperientziak baloratu, hautatu eta lehenetsi;
- Bere dinamikotasuna eta aldaketa historiko-ingurukoak onartuz gure apustu profesionala eraiki;
- Jardute profesionalean dauden aukera ezberdinak gure ikaskideekin kontrastatu. Gure garapen profesionalerako aukera gure ikaskideenarekin kontrastatu. Zalantzak eta ziurgabetasuna partekatu.

¹ Espezialitate arloko autobiografia da.

LANAREN EGITURA

Egitura moduan, lanak honako atalak izango ditu:

SARRERA

TESTUINGURUAN JARTZEA EDO ERABAKI BATEN ATARIA

- Nola erabaki nuen Gizarte Langintza ikastea.
- Nire lehenengo urtea Gizarte Langintzan: Aldaketa esanguratsuak neure buruan. Nire erabakiaren zergatiak ulertzen. Ziurgabetasuna edota krisialdiak.
- Nire bigarren urtean Gizarte Langintzan. Nire ikaskideak eta gure topaketak: aldaketa esanguratsuak neure buruan. "Gizarte Langintza"-ri buruzko nire iritzia eraikitzen lagundu duten gertaera esanguratsuak. Ziurgabetasuna edota krisialdiak. Gizarte Langintzari buruzko iritziak berreraikiz.
- Hirugarren urtea. Aldaketa esanguratsuak neure buruan. Gertaerak. Nire iritzia eta Gizarte Langintzaren eredia berreraikiz. Zer espero dut nire etorkizun profesionaletik.

PROPOSAMEN BAT ERAIKIZ: JARDUTE PROFESIONALERAKO NIRE SARRERA (Teorikoki "nire proiektzio profesional" ean oinarrituta).

- Gizarte Langintzaren nire definizioa.
- Nire printzipio eta balioak.
- Nire erreferente teorikoak, objektuak, helburuak, paradigmak eta esku hartzearen ereduak.
- Nire aukera ideologikoa eta metodologikoa.
- Jardutearen lehentasunezko sektorea, eremuak eta testuinguruak.

BIBLIOGRAFIA

ERANSKINAK

IKASGAIAREN MODULUAK

1. Modulua. Esku-hartze eremuak-Langintzako testuinguruak

1. Moduluan ikasle bakoitzak esku hartzearen gizarte eremuak zehaztu beharko ditu.

Taldeetan partekatzea norberaren iritzien kontrastatzean oinarrituko da, irakurritako testuetan oinarriturik. Taldearen txostenak ondokoa laburbilduko du: alde batetik testuen ideia garrantzitsuenak eta bestetik taldean eztabaidatutako aukera ezberdinetako ideiak.

Banakako proposamenerako, osagarritzko irakurketeen bidez norberak aukeratutako testuinguruan sakondu beharko du.

2. Modulua. Epistemologia eta Gizarte Langintza

2. Moduloan ikasle bakoitzak Gizarte Langintzaren objektu edo objektuei buruzko iritzia berreraiki egin beharko du. Bere aukera behin erabakita, norberak berean sakondu egin beharko du “Jardute profesionalaren nire sarrera” bere proposamenean sartu ahal izateko. Horretarako osagarritzko irakurketak lagungarriak izango dira baita 4. mailako ikasleei eta Gizarte langintzako profesionalei egindako elkarrizketak ere.¹²

Taldeetan partekatzea norberaren iritzien kontrastatzean oinarrituko da, irakurritako testuetan oinarriturik. Taldearen txostenak ondokoa laburbilduko du: alde batetik testuen ideia garrantzitsuenak eta bestetik taldean eztabaidatutako aukera ezberdinetako ideiak.

3. Modulua. Jardute profesionala eta identitatea

3. Moduloan ikasle bakoitzak Gizarte Langintzaren bere definizio propioa (garatuta) egitea lortu beharko du, gutxienez ondoko elementuak sartuz:

- Identitate profesionalaren profila, objektu, helburuak, eginbeharrak, lehentasunezko funtzio sozialak, funtsezko printzipio etikoak, ereduak eta metodologia.

Taldeetan partekatzea norberaren iritzien kontrastatzean oinarrituko da, irakurritako testuetan oinarriturik. Taldearen txostenak ondokoa laburbilduko du: alde batetik testuen ideia garrantzitsuenak eta bestetik taldean eztabaidatutako aukera ezberdinetako ideiak.

Jardute profesionalaren banakako proposamenerako, norberak bere definizioaren apustuan sakondu beharko du osagarritzko irakurketekin.

² Irakurketak eta beste testu interesgarriak aparte, ikaslegoak 4.mailako ikasleei eta gizarte langileei elkarriztak egin ondoren landutako konklusioak ere kontuan izango ditu bere proposamenean.

